

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

2989

AGINDUA, 2024ko ekainaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinen bitartez onartu egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpeko irakasle funtzionarioen erkidego-mailako 2023-2024 lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena, kidego hauei dagokiena: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen Kidegoa, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa (desagertze dagoena), Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoa.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bitartez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpeko irakasle funtzionarioen erkidego-mailako 2023-2024 lekualdatze-lehiaketako destinoen behin behineko esleipena, kidego hauei dagokiena: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen Kidegoa, Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoa (desagertze dagoena), Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoa.

Lanpostuen behin-behineko esleipena publiko egiten duen Ebazpen horren aurka aurkeztutako erreklamazioak aztertu dira, eta onartu diren ukoak sartu dira. Gainera, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2024ko maiatzaren 20ko Ebazpenean atzemandako akatsak zuzendu dira. Ebazpen horren bidez, merezimenduen baremoarekin onartu diren eta baztertu diren parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratu da.

Beraz, adierazitakoa kontuan hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko erkidego-mailako lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren hogeita zortzigarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik (2023ko abenduaren 1eko EHAA), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen goiburuan aipatutako irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioen lekualdatze-lehiaketaren behin betiko esleipena onartzea. Esleipen hori zerrenda hauetan dago jasota:

I. eranskina. Irakasleen kidego hauetan destinoa esleitu zaien karrerako funtzionario parte-hartzaileen zerrenda: Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen Kidegoa, Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoa (desagertze dagoena), Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoa.

II. eranskina. Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan eta desagertze dagoen Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduretan hautatu diren eta ikasturte honetan praktikaldia egiten ari diren parte-hartzaileen zerrenda, destinoa esleitu zaienena.

II. eranskinean esleitutako destinoak, hala badagokio, praktika-fasea gainditzearen eta karre-rako funtzionario izendatzearen baldintzapean egongo dira.

Bigarrena.– Agintzea aurreko eranskinak erakusgai jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> webgunean eta <https://hezigunea.euskadi.eus> helbidean, agindu hau EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera. Halaber, web-orri horretan bertan, erakusgai jarriko da uko-egiteen eta baietsitako, ezetsitako eta partez baietsitako erreklamazioen zerrenda alfabetikoa, arrazoia zehaztuta.

Hirugarrena.– Izendapenek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango dituzte 2024ko irailaren 1etik aurrera; eta jatorrizko ikastetxeetako kargu-uzteek 2024ko abuztuaren 31tik aurrerako ondorioak izango dituzte.

Laugarrena.– Indargabeturik geratuko dira lekualdatze-lehiaketaren deialdi honetan parte hartzeko betekizunak betetzen ez dituzten irakasleei akats baten ondorioz esleitutako destinoak. Agindu honen eranskinetan agertu arren eta are lanpostuez jabetu arren, ez da aurretiaz pentsatu behar deialdiaren betekizunak betetzen direnik.

Bosgarrena.– Lehiaketaren ondorioz zerbitzu aktibora itzultzen diren irakasleek 2024ko irailaren 2tik 4ra bitartean aurkeztu beharko dute honako dokumentazio hau: lekualdatze-lehiaketaren deialdiari buruzko 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren hogeita hamargarren oinarrian aipatua (2023ko abenduaren 1eko EHAA).

Seigarrena.– Bosgarren oinarriak aipatutakoaren arabera itzuli diren pertsonen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, non ziurtatuko baita ez dutela epai irmo bidezko kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta osotasunaren kontrako delituren batengatik (delitu horietan sartzen dira sexu-erasoa eta abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien trafikoa). Ziurtagiri hori Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emango du. Ez dute halako ziurtagiririk aurkeztu beharko Hezkuntza Sailari datu hori kontsultatzeko berariazko baimena eman diotenenek. Kontsulta hori elkarreragingarritasun-sistema elektronikoa baliatuta egin ahal izango du, Hezigunea hezkuntza-atariaren bidez, eta, horretarako, eremu murriztuan sartu beharko da (erabiltzailearen eta pasahitzaren bidez), «Adingabearen babes» atarian.

Zazpigarrena.– Agindu honetan lortutako plazei ezin zaie uko egin. Aitzitik, irakasleen kidego batean baino gehiagotan parte hartu eta destino bat baino gehiago lortu badira, 2024-2025 ikasturtean jardun nahi den destinoa hautatu beharko da, hamar egun naturaleko epean, behin betiko destinoen esleipenaren agindua EHAAAn argitaratzen denetik aurrera. Hala egin ezean, zerbitzu aktiboan egonda parte hartu den kidegoari dagokion lanpostua hartu beharko da jabetzan. Eskararik izan ez duten lanpostuak plaza hustzat joko dira, eta hezkuntza administrazioek erabakitako araudiari jarraituz beteko dira.

Zortzigarrena.– Lekualdatze-lehiaketa horretan parte hartu duten irakasleek, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko jatorrizko dokumentazioa aurkeztu badute, lehiatu diren Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzan berreskuratu ahal izango dute dokumentazio hori, bai bertara joanda, bai baimendutako pertsona bat hara bidalita. Horretarako, Agindu honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko bi hilabeteko epea bukatu egon beharko da.

2024ko ekainaren 21a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 13a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.